

ZUBIZARRETA, Patxi. *Barrikadak.*

Alberdania argitaletxea, Irun, 2003

94 orrialde

Ainhoa AROZENA

Bost pertsonaia nagusi, bost kontaketa, bost istorio... eta denak trenaren inguruan. Protagonista bakoitzaren egonezinak, miseriak karril arteko garraibidearen barruan nahiz kanpoan kontatu ditu idazle ordiziarrek. Bost kapitulutun banatuta, bakarka azaldu du kontaketa bakoitza, baina ez modu itxian; kapitulu batek bestearekin lotura estua du.

Senarrarengandik ihesi doan emakumearekin ematen dio hasiera Patxik eleberruari. Trena hartu eta Vigotik Hendaiara abiatu berri den emakumearen oroitzapenekin eta sentipenekin. Bizitza berri baten bila urrutira joateko indarra eskuratu duenean jarri du abian bere helburu nagusia: askatasuna eta zoriona aurkitzeko leihatila. Trenean, bere senarra zenari eskutitza idazten ari da ikuskatzailearekin begirada jolas polita izaten duenean... oraindik ere zoriotsu izateko ateak zabalik dituela konturatuko da berehala.

Gabardina luzez jantzita, bizibidea trena duen gizona da bigarren protagonista. Bizibidea trena du bai, lana ez da, ordea, trenetan egiten den ohikoena (edo bai). Lapurra da, horixe bere ogibidea. Trena tunel ilunetan sartutakoan bidaiarien poltsetan zer aurkituko ibiltzen da. Bizimodu gogorra egokitu eta lasaitze aldera aukeratutako lanbidea, protagonistaren miseriak eta ezinak agerian utziko dituena.

Ordiziako kuartelean bizi den guardia zibilaren irudia da hirugarren kontaketa muina. Espainiatik, ezkonberritan, emaztearekin diru gehiagoren bila etorri eta Euskal Herrian bizitzeko zailtasunak

ematen ditu aditzera. Euskal Herriarekiko eta euskaldunekiko gorrotoa beren buruaren sinesgarritasuna galtzerainokoa izango da, baita ingurukoena ere. Amorrúa, gorrotoa, haserrea, beldurra, zalantza, tristura... sentimendu ezberdinak.

Euskal Herriaren alde borrokan ari den gazteak hartuko du indarra laugarren kontaktetan. Institutuko ikaslea, herriaren alde borrokatzea da bere helburu nagusia eta ia bakarra. Euskaldunen aurkako jarreraren aurrean bat-bateko erantzuna, azkarra, etsaiari. Barrikadak eta iskanbilak guardia zibilarekin, suz eta arriskuz betetako egunak, iluntzeak eta gauak. Espainiatik etorritako erantzunari aurre egiteko ziurtasuna eta zalantza gazte ezberdinen azalean. Amorrúa, gorrotoa, haserrea, beldurra, zalantza, tristura... sentimendu ezberdinak.

Amona maitagarriaren irudia da bosgarrena. Tren geltokiaren ondoan bizi den emakume adinduarena. Eguneko orduak geltokiaren ondoan gertatzen denari leihotik begira igarotzen ditu, bizitzaren gogortasunak erakusten dio bizirik jarraitzen duela. Triste antzera bizitzeagatik, ez du inola ere etsi nahi. Begiratu atsegina eta esperantzaz bete amonatxoaren ahots goxoak eskaintzen duen guztia.

Liburuko kapitulu bakoitzean Antton Olariagak marraztutako marrazkiek, gertakizunetan kokatzen lagunduko diote irakurleari. Marrazkietan protagonisten aurpegirik batere ez. Siluetak eta kokalekua imajinarioaren lagungarri. 80ko hamarkadako Euskal Herrian zehar paseatu eta garaiko egoera ezagutzeko aukera benetan atsegina eskaintzen duen liburua da Patxi Zubizarretaren azken lana.